Joxemari Carrere Zalbala
IPUIN KONTALARIA

# Estandarra bortxatuz

Berrirakurtzen dut Dario Fo-ren *Aktorearen Eskuliburu Minimoa* (*Manualle Minimo dell'attore*). Egile italiarraren idazteko estiloaz gozatzeaz gain, antzerki ikasbide zoragarria dugu liburu hau. Antzerkia ez da, besterik gabe, eskenatoki batean –edozein eratakoa delarik– istorio bat azaltzea publiko baten aurrean; hori baino gehiago da, edo behar luke izan. Antzerkia pentsatzeko eta gogoetarako bidea da. Euskal hiriburu bateko antzerki programatzaile batek, elkarrizketa batean zioen ikusleak, antzokira zihoanean, bere arazoez ahaztu nahi omen zuela. Ez dakit bere leku pribilegiatu horretan antena berezirik ote duen halakorik jakiteko; ez dakit ere, ikuslea asmo horrekin ote doan antzokira; baina antzeztokira agertzen dena arazoez inguratuta bizi da, kristo guztia bezala. Hori horrela izanik, nola liteke eskenatokian ezer ez gertatzea? Nola liteke antzerkia mundutik aparte dagoen zerbait izatea? Eztabaida zaharra bezain egungoa dugu hau. Horregatik Fo irakurtzeak zalantzak argitzen laguntzen digu, niri behintzat: "Eta gure betebeharra da, edo, nahiago baduzue, gure eginkizun profesionala, egile moduan, zuzendari, antzerkiko jende moduan, errealitateaz hitz egitera heltzea, eskema estandarra bortxatuz, fantasiaren pizgarriarekin, ironiarena, arrazoiaren zurikeriarekin. Horrela aurre egingo diogu botereak ezarri nahi dituen egitarauari eta estrategiari: ikusleari irakastea bere zentzu kritikoa ez erabiltzen; burmuin planoa eta fantasia hutsa izaten".

DANI BLANCO

> Harrigarria egiten zait zeinen sartuak dauden aktuatzeko eredu batzuk, istorioak kontatzeko manera *telebisiboak*

Geure buruari galdetu beharko genioke ea zer demontre azaldu nahi dugun jende aurreko lan bati ekiten diogunean. Jende aurrean jartzen garenok zerbait aurkeztu nahian, zorte izugarria dugu, izan ere, nork dauka aukera hainbat jende –egia da, askotan gutxiegi– ea zer kontatzen diogun zain egotea? Eta ordainduta askotan! Antzerkia baliabide ederra dugu honetarako, baina gogoeta ezinbestekoa izango da, ez bakarrik istorio bera asmatzeko, baita ere estetikaren gainean, hizketaldian, pertsonaien osaketan, zuzendaritzan. Azken aldian aukera izan dut antzerki talde amateur eta antzerki tailer batzuen lana ikusteko –eta okerrena, epaitzeko!–. Deigarria egin zait nola gehienetan Fok aipatzen duen estandar hori erabiltzen den. Harrigarria egiten zait zeinen sartuak dauden aktuatzeko eredu batzuk, istorioak kontatzeko manera *telebisiboak*; ekintza berak hartzen duelarik garrantzia, alegia, antzerkia egiteak; zertarako ordea? Auskalo. ■

## TXANDAN

Amatiño

# L'enfant...

*L'enfant terrible*arenak: 1982ko urritik abendura bitartean prestatu genuen telebista-programazioa elebiduna izan zen. Urteberriko aurreneko saioak euskaraz zein gaztelaniaz izan ziren horregatik.

Urtarril hartan erabaki zen, ordea, ordurarteko esperientzia guztiek arras frogatzen zutela komunikabide elebidun denetan beti amaitzen zela gaztelania gailentzen euskararen kaltetan. Alegia, erdaldunek onartu lezaketen euskarakopurua hutsaren hurrengoa dela euskaldunentzat, eta euskaldunek gutxienekotzat jotako euskara, aldiz, lar dela erdaldunentzat. Arrazoi soil bezain sakon honi esker sortu zen ETB1 elebakarra eta horregatik, hain zuzen, gaur arte iraun.

Orain, ostera, badira hainbat euskaltzale argi, aditu, jakitun, maisu eta ez dakit zer gehiago, euskararen gizarte-normaltzearen onetan komunikabide publiko elebidunen apustua egin nahi dutenak. Segurutik oso bizkorrak izango dira baina ez dute batere erantzukizunik, *l'enfant terrible* hutsak dira. Eman bai ideiak eta gero, errua, adituen proposamen onak kudeatzen ez omen dakiten politikoena izango da. ■